

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi nizkizueke *Galtzaundi* forum honetara gonbidatu nauzuelako, eta gainera, Tolosako herria oso minberatua duen gai bati buruz hitz egitera, tolosarrak baitziren Estatu espainoleko terrorismoaren azken aldiko lehenengo biktimak, Joxi eta Josean, hain zuzen ere.

Gaur gainera, 10 urte dira GALek Ramon Basañezen kontra Donibane Lohizuneko *Consolation* tabernan atentatua egin zuela; haren ondoren Paulo Fontes mertzenario portugaldarra atxilotu zuten, eta haren adierazpenak Amedo eta Dominguezenganaino iritsiko zen hariaren hasiera izan ziren, beste modu batera esateko, GAL kasuen ikerketen abiapuntua.

Nire asmoa da hitzaldi honetan estatu espainolaren terrorismoaren **hasiera eta garapenaz** zenbait ideia finkatuta uztea; bestalde, talde horiek izan zituen **zenbait ezaugarri** agerian jartzea, eta ahal den neurrian, oraindik erabat osatu gabe dagoen **GAL-en egituraren organigrama** osatzen laguntzea; era berean, estatuaren lege haustek ikertzean sortzen diren **zailtasunak** agerian jartzea, eta Estatuaren teoria oinarritzat hartuta Estatu espainolaren eta bere aparatuen edo egituren izaera eta ezaugarriei buruz zenbait ondoriotara iristea.

Labur esateko, egunero, eta azken hilebeteotan, komunikabideetan azaldu diren informazio eta datuen zurrumbiloan geldialdi bat egin, eta bildutako berriak txukundu, sailkatu eta, ahal dela, gogoetaren bat egin.

1.-METODOLOGIA AZALPENAK

1.A. Metodologia gisa, eta Estatu terrorismoa izan denaren ikuspegi egokiagoa izatearren, beharrezkoa iruditu zait frankismoaren amaieratik hasitako ibilbide historikoa egitea, eta ez GAL erakundearen azterketa soil.

Beraz, **bi belaunaldi** bereiziko ditut Estatu terrorismoan, bata, frankismoaren azken hilabeteetan (1975ean) sortu zena, eta UCDren gobernuaren menpean garatu zena, PSOE (1982an) aginpidera iritsi bitartean; eta bestea, gobernu sozialistaren garaiakoa, "GALen aldia" izena emango dioguna.

Dena dela, lehenengo belaunaldiaren barruan **bigarren bereizketa** bat egin nahi nuke: 1975etik-1977ra bata, eta, 1978tik-1981era bestea.

Izan ere, iruditzen zait 1978. urtean, oso modu nabarmenean, aldaketa kualitatiboak eta kuantitatiboak izan zirela estatuaren talde terroristen ihardueran, eta harrez gero, gertaeraren ezaugarri zehatzagoak izan genituela.

1.B. Era berean, gerra zikinaren aurrean **lau erantzukizun-maila** bereizi nahi ditut, edo lau talde handi hartzen dituen organigrama:

I. ERABAKI POLITIKOEN MAILA

II. ESTRATEGIAREN EDO EKINTZEN EGITASMO-ERABAKIEN MAILA

III. MERTZENARIOEN HAUTAKETA ETA KONTRATAZIOA

IV. EKINTZA ARMATUEN GAUZATZE MAILA

Hitzaldian zehar ikusiko dugu, pixkanaka pixkanaka, eta estatu terrorismoaren garai eta belaunaldi desberdinetan, estatuak bereizita eduki nahi izan dituen maila horiek bata bestearen atzetik azalratzen direla, gaurko unera

iritsi arte; Barrionuevoren auziperatzearekin, lehen maila agerian geratuz. Laurak azaldu dira, nahiz eta neurri batean besterik ez izan, eta zenbait kasutan oso neurri txikian.

1.C. Gerra zikinaren edo beltzaren barruan, beste bereizketa bat egitea komeni da hasi aurretik:

1. "Kontrolik-gabekoen" (inkontrolatuen) terrorismoa.

Poliziek, militarrek edo eskuindarreko alderdi politikoetako kideek herritarren kontra edo etsai politikoek kontra egindako bortxakeriazko ekintzak dira. Terrorismo mota hori askotan agertzen da barruan arazo nazionalak dituzten estatuetan, eta horietan polizia estatu-nazionalismoaren "beso zigortzaile" bihurtzen da. Bereziki indarrez azaltzen da aldaketa politikoek garaian. Ekintza horiek gutxitan izaten dute hilketa helburu, baina aukera hori ere ez da erabat baztertzen.

2. Mertzenarioen terrorismoa.

Ez du autonomiarik izaten eta politika orokarren atal bat izaten da. Egileek sari truk (diru truk) egiten dute lan, bere ekintzen barne logika kontrolatzen dutenen esanetara. Erregimen edo sistema politikoa aldatu nahi dutenak akabatzea izaten da terrorismo mota horren helburua. Antolatzaile edo zuzendariak ia beti estatuko militarrekin eta poliziekin dute zerikusia.

Azterketa egiteko bereizi ditugun bi belaunaldi eta 3 garaietan bi terrorismo mota horiek elkarrekin bizi izan dira lehenengo bi garaietan, eta hirugarrenean inkontrolatuen terrorismoa desagertu gabe, GAL-eko mertzenarioen terrorismoa bihurtu da nagusi.

Has gaitzen beraz azterketa historikoa egiten:

2.- ESTATU TERRORISMOAREN LEHENENGO BELAUNALDIA

Esan daiteke **Carrero Blanco** 1973ko ekainean Espainiar gobernuaren Lehendakartzara iritsi zenean, bere ideietako bat izan zela euskal "separatismoaren" kontra estrategia berri bati ekitea; gainera, okertzat hartzen zen informazio zerbitzuek terrorismoaren kontrako borroka erabat Poliziaren esku utzi izana, horrela ejerzitoa gutxiesten baitzen; era berean, informazio militarren zerbitzuak berregiteko erabakia hartu zuen, eta inteligentzia zibila eta militarra kontrolpean izateko erakunde bat sortu zuen, hots, Gobernuko Lehendakartzaren Dokumentazio Zerbitzu Zentrala (**SECED**), CESIDen aurrekoa, San Martín koronela zen buru zuela. Bere asmoa zen SECEDen inguruan egitura paramilitarra eta parapoliziala eratzea errepresio lanak egiteko.

Carrerori leporatu izan zaio baita ere ETaren kontra gerra zikina erabiltzearen ideia, eta bai berak eta bai SECEDek hasieratik garbi ikusi zuten, funtzionario espainiarrek ez zutela ekintza horietan zuzeneko partaidetzarik izan behar. Urte horietan bazen italiar neofaxisten talde bat (Avanguardia Nazionale, Ordine Nuovo ...), beren herriko justizia atzetik zutena, eta Carrerok tratua egin zuen haien ordezkari batekin, Delle Chiaie eta Valerio Borghese, faxista horiei babesa eta laguntza emateko, SECEDentzat lan egiten baldin bazuten, informazioa lortzen bazuten eta ETaren kontra iharduten bazuten Iparraldean. Horiekin batera OAS-en kide ohiak bildu zituzten eta eskuindar espainiarrak. Carrerok Gobernuko Lehendakaritzan oso denbora laburra egin zuen arren (atentatua izan zuen 1973ko abenduan), haren asmoek aurrera egin zuten.

2.1.- 1975-1977 ALDIAREN EZAUGARRIAK

Estatu terrorismoaren hasierak Carrero Blancoren heriotzaren mendekua du azpian, eta eskuindar espainiarrak eta militar frankozaleak izan ziren bultzatzaile.

A) Ekintza motak:

A.1. Iparraldean: "mertzenarioen terrorismoa" da nagusi.

-Liburudenden kontra (Mugalde, Nafarroa...)

-Tabernen kontra (Etxabetarren familia); eta baita eskola eta zenbait elkarteren kontra ere.

-Bahiketa saio bat (J.M. Zabarteren laguna).

-ETAko buru omen zirenen kontra bana-banako erasoak edo pertsona jakinen kontrako atentatuak hasten dira: Josu Ternera (75eko ekainaren 5ean); Txomin Iturbe (75eko azaroaren 16an); Perez Revilla (76ko martxoaren 6an)

Batez ere lehergailuak erabilia egin ziren, baina izan zen tartean ametrailamenduren bat.

A.2. Hegoaldean: Mertzenarioen terrorismoa eta "kontrolik-gabekoen" (inkontrolatuena) ezagutu genuen.

"Kontrolik-gabekoen" (inkontrolatuen) ekintzek helburu oso desberdinak izan zituzten: tabernak, dendak, alderdi politikoak, sindikatoak... Ekintza horietako batean Etxabe-enea taberna ametrailatu zutenean, Iñaki Etxabe hil zuten (75eko urriaren 6an)

-Bestalde, mertzenarioen terrorismoaren kideak **hilketak egiten hasi** ziren, eta hala egin zuten Yurramendiko jende aurreko bileran (1976ko maiatzaren 9an; Delle Chiaie, Calzona eta Rici han izan ziren); eta beste zenbait ekintzen artean, Hernanin pertsona bat hil zuten, David Salvador taxi gidaria (77ko urriaren 7an).

Baina beharbada hori guztia, neurri batean, apaldua geratzen da, badagoelako azaleratzen den bortxakeria mota bat hegoaldeko kaleetan: poliziarena; 4 urteetan 60 hildako eta zauritu ugari izan baitziren.

Kalearen jabe egiten zen polizia mota zen, **okupazio polizia**, inolako zigorrik eta kontrolik ez zuena, erabat militar tankerakoa.

B) Ekintza armatuen gauzatze maila

Espaniar gobernuak kontrolik-gabekoen taldeei leporatzen dizkie ekintza horiek, baina ekintza horietako batzuk, mertzenarioen terrorismoarena bereziki, hasieran ATE-k hartzen du bere gain, eta beranduago Triple A-k edo BVE izenekoak. Gainera kasuren batean ekintza bera bi erakundek batera, AAAk eta BVEk, hartzen dute bere gain.

Neofaxista italiarrez gainera, OAS-ekin zerikusia duten mertzenarioak hasten dira azaltzen, Cherid lekuko, "pertsona giltzarria" gerra zikinaren bi belaunaldietan. Horietako beste bat Marcel Cardona izango da, Josu Terneren kontrako atentatuan hil zena. Edo Francois Chabessier, Baionako Udalaiz tabernan izandako atentatuan atxilotu zutena.

C) Era berean, Iparraldean **espainiar poliziaren** iharduera ikus daiteke, adibidez, ustezko antikuarioaren kasua (Martinez antikuaria) Donibane Lohizuneko Mingo tabernaren kontrako atentatuan (75eko maiatzaren 24an); Cocoliso izeneko espainiar zerbitzu sekretuetako kide bat ere atxilotu zuten; baina oso kasu bakanak dira eta badirudi Carrerok finkatutako biderei eusten zaiola orohar, alegia, espainiar funtzionarioek ekintza horietan parte ez hartzea.

Hegoaldean berriz, poliziek eta guardia zibilek parte hartu zuten "kontroligabekoen" taldeetan, euskal gizarteak esaera batean adierazi zuen bezala: "de día uniformados, de noche incontrolados".

D) Estrategiaren edo ekintzen egitasmo-erabakien maila

Mertzenarioen eta espainiar poliziaren arteko harremanak hasten dira nabarmentzen. Adibide gisa, Candido Acedo, Guardia Zibilaren kapitaina, Josu Terneren kontra ihardun zuen komandoaren zuzendari izan zela diote.

SECEDek egiten duen lanaz gainera, ez da ahaztu behar, garai horretan bertan, gerra zikinaren lanetan ari zela Informazio Brigada Zentrala, Conesa komisarioa buru zuela, eta Antonio Gonzalez Pacheco, Billy el Niño, haren laguntzaile zela.

Era berean, ondorengo urteetan garrantzitsuak izango diren gizonen izenak ematen dira ezagutzera:

Conesari Manuel Ballesterosek hartu zion txanda 1977an, Informazio Brigada Zentralean.

A. Casinellok hartu zuen SECED-en ardura, erakundearen azken urteetan eta CESID sortu zenean, 77ko uztailean, Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzuetako buru egin zuten.

E. **Frantziar poliziaren** eta justiziaren jarrera, ekintza horietan Estatu espainiarrak izan zezakeen erantzunkizuna estaltzen saiatzearena izan zen batez ere, frogak desagerraraziz.

2.2.-1978-1981 ALDIAREN EZAUGARRIAK

A) Mertzenario-taldeak

Gerra zikinean ari diren taldeen egitura eta **antolamendu berria** egiten da.

Mertzenario-taldeak batez ere giro hauetatik sortuak dira:

-Hegoameriketako sarea: Triple A taldeko ultra edo eskuindar argentinarra (Boccardo)

-Italiar sarea: Neofaxista italiarrak (Delle Chiaie, Rici, Calzone...)

-Frantziar sarea: OAS-eko kide ohiak (Cherid), eta Marsellako hampa (Perret anaiak)

Eta horiekin batera, espainiar eskuindarren sarea (Cristo Rey-ko gerrileroak, eta abar...)

Horietatik **bi talde nagusi** sortzen dira, Cheridek eta Perret anaiek zuzentzen dituztenak, eta talde horiek osatzen dute BVEaren gunea. Garai horretan sortzen diren beste taldeak erakunde nagusi beraren adarrak dira.

Izen ugari erabiltzen dira erasoak bere gain hartzeko (BVE, Triple A, ATE, ANE...), garai honetan gehien erabiltzen dena BVE bada ere.

Baina guztiak **egitura berberak** egindakoak ziren, Iturbide eta Zabalaren kasuan ikusten den bezala; izan ere Jose Ramon Ansa Urnietan hil zutenean, Triple A-ren izena erabili zuten, eta beste hilketa batzuk bere gain hartzeko berriz BVE-ren izena.

Hori herrian nahasteak eta zalantzak sortzeko egiten zen, eta, antolamendu eta egitura jakinik ez zuten "kontrolik-gabekoen" taldeak zirela itxura egiteko, horrek zaildu egingo bailuke "poliziaren lana".

B) Ekintza motak

Aurreko garaiarekin konparatuta, atentatuen helburuak **gehiago zehazten dira**, ekintzak era askotakoak diren arren, batzuk jende aukeratuaren kontrakoak dira eta besteak edonoren kontrakoak; batzuk ustezko ETaren zuzendaritzaren edo ETAko kideen kontrakoak, eta besteak herritarren kontrakoak.

B.1. Iparraldean:

Mertzenarioen terrorismoak jarraitzen du nagusi izaten. Atentatuak gehiago zehazten dira, kopuruz gehitu egiten dira, eta lehenengo hildakoak azaltzen dira, denera 6 hildako izan arte. Helburu zehatz bat dute: Argala, eta Carreroren kontrako erasoan ustez parte hartu zutenak, edo ETaren zuzendaritza osatzen zutenak.

6 hildako eta desagertu bat Iparraldean: -J.J. Etxaberen kontrako atentatua, Agurtzane Arregi hil zen (78ko uztailaren 2an); Argala (78ko abenduaren 21ean); Enrique Alvarez "Korta" (79ko ekainaren 25ean); Pantu (79-8-2); Periko Elizaran (79-9-13); J. Martin Sagardia (80-12-30). Urte horietan Naparra desagertu zen (80-6-11).

Horrez gainera, Arantxa Sasiainen bahiketa saioa (79ko otsailaren 21ean), eta Peixoto (79ko urtarrialren 13an), Txomin Iturbe (79ko maiatzaren 4an), Mikel Lujua (81-3-4) eta Antton Etxebesteren (81-3-21) kontrako atentatuak.

B.2. Hegoaldean:

Hildakoak izan zituzten atentatuen **kopurua gehitu** egiten da, batez ere 1979-80 urteetan —22ra iritsi ziren denera—. Hasierako garaian baino **zehaztuagoak** eta aukeratuagoak dira, eta ezker abertzaleko pertsonak edo ondasunak dituzte helburu gehienetan.

*"Heriotzaren triangelu" ezagunean (Andoain, Hernani, Errenteria) izandako erasoak: - HBko zinegotzi baten kontra (Tomas Alba)

-Amnistiaren aldeko batzordeko kideen kontra (Saldise Lezon, Ijurko Oreretan).

*Eibarren, Zubikarai, ETAko kide ohiaren kontra.

*Ondarrun, Angel Etxaniz, EGINeko fundatzailearen kontra.

B. 3 Hala ere, bai **Hegoaldean** eta bai **Iparraldean**, ikusten da aukeratutako pertsonen kontrako atentatuekin batera, badela baita ere **herritarrak beldurrarazteko** ahalegina eta horretarako atentatu orokorrakoak eta edonoren kontrakoak egiten dira:

Iparraldean: Hendayais tabernaren kontra (80-XI-24), bi hildako eta 10 zauritu izan ziren.

Hegoaldean: Aldana tabernaren kontra (80ko urtarrilean) 4 hildako. Bilboko Iturriaga Haurtzaindegiaren kontra (80ko uztailean) 3 hildako.

B.4. Garai honetako berrikuntza izan ziren BVEak **Euskal Herritik kanpo** egin zituen atentatuak. Horrek garbi adierazten du bere kideek diru ugari erabiltzen dutela eta ondorioz atzetik erakunde bat duela.

79ko-6-28. Parisen, PCER-en bi kideen kontra (Martin Eizagirre eta Fernandez Caro hil zituzten)

80ko-11-14. Venezuelan, Jokin Etxeberria eta Espe Arana, Euskal errefuxiatuen aldeko taldeko kideak hil zituzten.

81eko-apirilean. Paris. (Xabier Agirre, ETA (pm)ko kidea hil zuten. Hori izan zen BVEren azken atentatua.

Mugikortasun handia dute. Parisko atentatua egin zuen Cheriden taldeak, hiru egun lehenago beste bat egin zuen Baionan Enrique Alvarez, "Korta"ren kontra.

Dena dela, ez dirudi komando guztiei arreta bera ematen zitzaienik, eta itxuraz tratatu hobe ematen zitzaien mertzenario kanpotarren taldeei, espainiar

eskuindarren taldeei baino. Iturbide eta Zabalak beren 7 hilketetarako hiru urteetan legezko matrikula zuen Seat 127 bat erabili zuten. Horrek garbi uzten du, era berean, zer nolako askatasuna zuten leku batetik bestera ibiltzeko.

C) Garai horretan **Frantziako poliziaren** jarrerak Iparraldean ezaugarri hauek izan zituen:

-BVEren atentatuen aurrean jarrera pasiboa

-Herritarrak beldurrarazten lagundu

-Errefuxiatuen atxilotzeak gehitu

-Ez dago gerra zikinean zuzenean parte hartu zuela uste izateko daturik, baina errefuxiatuen artean uste zuten ETAko zenbait kide jakinen joan etorriei buruzko datuak frantziar poliziak beste inork ezin izan zituela eman.

D) Garai hau **Iturbide eta Zabalaren** atxilotzearekin amaitu zen, 81eko martxoaren 5ean, Jesús Martínez Torresek zuzendu zuen operazioan. Alegia, espainiarrez osatuta zegoen BVEren komando bakarra atxilotu zuten.

Aipatzekoa da baita ere Entzutegi Nazionalaren 85-6-11ko epaiak, 200 urtetako zigorra ezarri zienak, frogatutzat eman zuela, pertsona horiek "**beren kontura**" aritzea erabaki zutela.

Dena dela, atxilotze horiek gertatu ondoren izan zen beste atentaturik, adibidez Antton Etxebesteren kontra 81eko martxoaren 3an egin zena, eta lehen aipatu dugun Xabier Agirrerren kontrakoa, Parisen.

E) Estrategiaren edo ekintzen egitasmo-erabakien maila

Ikerketarik izan ez zenez gero, ez egunkarietan, ez epaitegietan (espainiar epaitegietara 2 sumario besterik ez ziren iritsi, Hendayais eta Iturbide eta

Zabalaren kasuak), oso datu gutxi ezagutzen dira 2. mailari buruz, hau da, estrategia eta operazioen plangintzari buruz, eta ezkutua geratzen da. Ez da adibidez, CESIDen parte hartzeari buruzko datu zehatzik, uste izatekoa den arren, erakunde horrek zerikusia izan zuela, bai informazio lanetan eta baita ekintzen nondik norakoan ere, ez baitago matxinatzeen kontrako borrokarik egitura militarren barruan antolatzen ez denik, eta are gutxiago, espainiar estatuan, egitura poliziala horren militarren tankerakoa izanda.

Ditugun datu urrietatik, hala ere, azpimarra daiteke ekintzen prestaketaren mailan nola edo hala zerikusia izan zutela:

-CESID-ek

-Informazio Komisaldegi Orokorrak

-GOSSI-k (Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzu Sekretuetako taldeak) — Cheridek, hil zenean, GOSSI-etako kide baten karneta zeraman—. Talde hauek lotura zuten Guardia Zibilaren Aitzindarien 2. sekzioarekin.

-Aipatzekoa da baita ere A.Casinello, hots, CESEDetik irten eta Guardia Zibilaren Informazio Zerbitzuko buru jarri zutena, eta Saenz de Santamaría Komunitate Autonomoko Ordezkarri Berezi izendatu zuten 80ko otsailan.

Ditugun ikerketa urriek ez digute datu zehatzik eman oinarrizko galdera argitzeko, alegia, 2. maila (poliziaren eta ejerzitoaren zerbitzu berezietako kideak) autonomia ote zen, ala estatuak berak antolatu eta zuzendu ote zuten.

Galdera hori ez da estatu terrorismoaren bigarren belaunaldian egin beharko, lehenengo maila agerian geratuko delako, orian ikusiko dugun bezala.

3.-ESTATU TERRORISMOAREN BIGARREN BELAUNALDIA

3.1 PSOE BARNEKO TEORIAZKO EZTABAIDA ETA GAL-en SORRERA

A) Iturbide eta Zabala atxilotu ondoren, eta lehen aipatutako atentatuak izan ezik, bi urtetako **etenaldia** izan zen, eta tarte horren erdian PSOE iritsi zen gobernura, 1982ko urrian.

Etenaldi horren arrazoiaren artean, bat dago nire iritziz aipatzekoa:

Otsailaren 23ko estatu kolpearen ondorioz Zerbitzu Sekretuetan eta polizian, eta bien artean, sortutako istiluak, besteak beste, estatu kolpean zerikusia izan baitzuten, San Martín, CESEDEko lehenengo buruak, Cortinak (CESIDeko talde operatiboen buruak), eta Gil Sanchez Valientek (GOSSIetakoa), "maletinarekiko gizona" izenez ezaguna.

Mertzenarioak ere erabiliak izan ziren barne-borroka horietan, eta horren adibide dira Cheridek eta Riccik 1982ko ekainean CESIDeko txaletetan jarritako lau lehergailuak.

Izango dira "geldialdi" horren beste zenbait arrazoi, baina nire iritziz, hori izan zen garrantzitsuenak.

B) Urte horietan (82-83) badira zenbait datu PSOEk Estatu terrorismoa abiarazteko asmoa zuela erakusten digutenak:

B.1. PSOEren barruan **ETAren kontra borrokatzeko eredu**ei buruz izandako eztabaida. Bi ziren aukera nagusiak:

*Europar ereduak. Teorilarietako bat P. Wilkinson da, OTANeko eta Europa Kontseiluko aholkularia borroka antiterroristarako.

*Amerikar ereduak. Teorilarietako bat Mickolus da, CIAko aholkularia.

Sozialisten ereduak, europarra izan arren, badu bigarren ereduko osagairik. Horrela, Wilkinsonen esanak hartzen dira kontutan, ejerzitoaren parte hartzea baztertzen denean, baina garrantzizko eginkizuna ematen zaio erakunde militar bati, Guardia Zibilari. Aldi berean, amerikar eredutik hartzen dira "propaganda beltzaren" eta mertzenarioen terrorismoarenean ideiak.

B.2. Aldi berean zenbait azterketa egiten dira "**santutegi frantziarraz**" eta han iharduteaz:

-R. García Damborenea "La encrucijada vasca" liburuan, GAL abiaraztea erabaki zutenek buruan izan zutenari buruz argibideak ematen dizkigu.

-Andrés Casinello eta Gillermo Ostos, Barrionuevok sortutako Informazio eta Operazio Berezien taldearen barnean egiten dituzten azterketak. Hitzen

erabilera bera zaintzen dute eta hauek "kontraterroismoa" egitea proposatzen dute eta ez "antiterroismoa", eta horrela adierazten dute ekintza baten aurrean beste antzeko bat egin behar dela; terroismoa dela diotenari terroismoaren bidez erantzutea.

-CESIDek egiten dituenak. Perotek onartu zuen Garzónen aurrean, beste herrietako esperientzian oinarritutako teoriako lanak prestatu zituela.

B.3. Eztabaida Barne Ministerioko kargu politikoenganaino iristen da, eta Barrionuevoren eta Barne Ministerioko Idazkariorde Carlos Sanjuanen artean istiluak sortzen dira, zenbait hilabete geroagoko ondorioetan ikusi ahal izan zen bezala.

B.4. Gogoeta horietako batzuk, 1983ko udaberrian ezagutzera eman zen **Plan ZEN** edo ZEN Egitasmoan gauzatzen dira. :

Erreferentziak , 2. mundu gerra amaitu ondoren CIAk egindako gerrilen kontrako esku liburuetan aurkitu behar dira, Casinellok *Fort Braggeko* Estatu Batuetako ejerzitoko Gerra Eskola Beregian egin zituen ikastaldiei esker, oso ongi ezagutzen zituenak.

B.5. Era berean 83. urtean zehar PSOE bere **lege antiterroista** prestatzen aritu zen eta 83ko azaroaren 3an Kongresuko bilera batean aurkeztu zen Gobernuak prestatutako terroismoaren kontrako neurri multzoa.

Aldez aurretik (83-10-25), Felipe Gonzalez, PSOEren politika antiterroistaren berri emateko, Fragarekin bildu zen, eta oraintxe aipatuako 83ko Kongresuko bileran, Fragak berak erantzun zion "gerra zikinean" erortzeko arriskua aipatu zuen diputatu bati, esanez, ezin zela horrelakorik esan, eta "defentsa eskubideaz" besterik ez zela hitz egin behar.

El País-eko kazetari batek honela izendatu zuen egun horretako parlamentu kronika: "*una sesión llena de sobreentendidos*", eta esaten zuen: "*una posible puesta en marcha de tácticas de guerra sucia flotó sobre la sesión*".

C) Alderdi Popularrak, edo gutxienez Fragak, ezagutzen zuen PSOEK ETAREN kontra prestatutako egitasmoa, izan ere, aipatutako elkarrizketaz gainera, badira beste zenbait datu:

-Julio Feo, Felipe Gonzalez presidentearen Idazkariak, "Aquellos años" liburuan, esaten du Fragari CESIDeko aldizkariaren kopia bidaltzen zitzaioela, eta oso-oso jende gutxi zuela aukera hori.

-Melchor Miralles-ek "Amedo: El Estado contra ETA" liburuan, 84ko otsailean, Enrique Casas hil ondoren, Fraga eta Gonzalezen arteko elkarrizketa baten berri ematen digu. Fragak Feliperi esan omen zion garrantzitsuena ETA desagerraraztea zela eta berdin zela nola, baina gauzak ongi egin behar zirela, eta egiten zuen guztian PP bere alde izango zuela.

D) GALen sorrerarako beste datu garrantzitsu eta jakin bat zen, Estatu terrorismoaren 1. belaunaldiaren **egitura oso osorik** zegoela, BVeri egindako ikerketak Iturbide eta Zabalarekin hasi eta bukatu baitziren. Ukitu gabe zegoen.

*Alegia, informazio zerbitzuetan jarraipena zen nagusi, bai metodoei eta bai pertsoneri zegokienean.

*BVEean parte hartu zuen mertzenario taldeak ahalmena zuen Estatu terrorismoaren garai honetan talde berriak osatzeko.

E) Kontutan hartzeko beste ezaugarri bat da garai horretan polizi zerbitzuak oso militarren tankerakoak zirela, bai pertsoneri zegokienean eta baita heziketa eta jarrerari ere.

F) Baina, beharbada, "El Mundo" egunkariak argitaratu dituen CESIDeko paperekin eman dizkigute **GALen sorrerari** buruz argibiderik onenak.

F.1. GAL-en "fundazio akta" deritzana, 83ko uztailaren 7koa.

F.1.a). Estatu terrorismoaren ardura zutenei buruz hitz egiten digu, alegia, nork sortu zituen GAL taldeak galderari erantzuten digu: "*sólo quien está dirigiendo la lucha contra el terrorismo en su conjunto podrá decidir emprender o no este tipo de acciones*"

F.1.b). Iharduteko moduari buruz lau mota bereizten ditu:

. Mendekua. ETAren atentatuei erantzuteko zehaztu gabeko edo helburu jakinik gabeko ekintzak egitea.

2. ETAko buruzagiak desagerraztea edo hiltzea. Horrek azpiegitura handia eta prestatua eskatzen zion Estatuari, eta gainera ez litzateke erraza izango horrelako gauza bat "kontrolik-gabekoen" lana zela sinistaraztea, eta horren ondorioz Gobernuaren kontrako salaketak sor zitezkeen.

Horretarako egokiena mertzenarioak erabiltzea zen.

. Lurraldean ziurtasun eza sortzea; eta zigorra edo mendekua Iparraldean egitea.

. ETA barruan istiluak sorrarazteko eta gerra zikinaren ekintzak estaltzeko, GALen atentatuak ETARI leporatzeko asmoa, ETA barneko kontraesanen eta arazoen ondorio eginak zirela sinistaraziz.

Agiri honek azken gogoeta bat egiten du, eta azpimarratzen du edozein egoeratan ekintzarik egokiena "bahiketa bidezko desagerraztea" dela.

F.2. 83-9-28ko CESIDen Barne Oharra:

"De fuente totalmente segura, se sabe que están previstas realizar acciones violentas en el Sur de Francia en fechas inmediatas. Estas acciones se llevarían a cabo por miembros de la Guardia Civil , que actuarían respaldados por la Comandancia de San Sebastián. Estas acciones se harían en paralelo con otras llevadas a cabo por individuos contratados en Francia. La selección de objetivos es inmediata. Se considera que acciones incordinadas sin una finalidad ulterior, no facilitan el éxito en la lucha contraterrorista. Al contrario, sensibilizan la zona y dificultan otras acciones ya planificadas y con una finalidad más decisiva".

Ohar honek adierazten du:

-Estatu terrorismoaren berahalako hasiera. Oharra idatzi eta handik 17 egunera, 83ko urriaren 15ean izan zen Joxi eta Joxeanen bahiketa.

-Guardia Zibilen partaidetza; bada beraz, GAL berde bat.

-Intxaurrondoko kuartelaren partaidetza (laguntzaile gisa)

-Frantzian kontratatuko mertzenarioek egingo lituzketen ekintzekin batera beste zenbait ekintza egingo zirela.

F3. CESIDetik datorren azken argibidea da, han egin zela GAL taldearen zigilua, eta F. Alvarez komisarioari eman zitzaiola.

G) Zer da GAL taldea?

Orain arte esandakoarekin, zehaztu genezake GAL zer den, eta agian sortzaileetako batek, Garcia Damboreneak, 85eko urriaren 22an "El Mundo" egunkariari egindako adierazpenak izan daitezke horretarako egokienak:

"Una decisión política de actuar contra el terrorismo en territorio francés. Para cubrir esas actuaciones y desviar la atención, se inventan unas siglas: GAL. Pero no se crea un cuerpo de lucha, ni un organismo especial. No. Es la misma administración del Estado, con sus medios, con sus hombres, la que actúa. Esas operaciones son secretas, entre otras razones, por exigencias diplomáticas. Así que los GAL no son más que la cortina que oculta a los auténticos autores. Un montaje de ese calibre, que mueve policías, guardias civiles, armas, vehículos, dinero..., y que necesita coordinar efectivos e informaciones de los Ministerios de Interior y de la Defensa, ha de estar autorizado desde arriba, desde la Presidencia del Gobierno".

"el GAL no es un grupo, ni mucho menos una banda armada, sino los "hombres de Estado", el Ministerio del Interior luchando contra ETA o más abstracto todavía, una decisión política".

Eta hori zen euskal herritarren zentzuak hasiera hasieratik uste zuena. Beraz **GAL taldea Estatua bera da**, talde armatua Estatua da; GAL ez da erakunde bat,

erakundea Estatua da, orain izen horrekin, edo aurreko belaunaldian beste izen askorekin; azken batean, horien atzetik Estatua bera da terrorismoa egiten duena.

Saenz de Santamaría jeneralak duela gutxi (96-1-28), uste horiek baieztatu ditu, hau zioenean: "*Yo no separo los GAL de la lucha antiterrorista*".

H) 1983garren urte bukaeraz gero, **apostu garbia** egiten du PSOEn gobernua Estatua terrorismoa garatu eta indartzearen alde, eta hori erakusten dute 83ko azarotik 84ko martxora bitarte, Barne eta Defensa Ministerioetan izandako aldaketek, alegia Segundo Mareyren bahiketan partaide izan zirenak mailaz igo eta borroka antiterroristaren buru egin zituztenean. García Damboreneak dioen bezala, buruak Madrilen bildu ziren:

-83ko azaroan, *Saenz de Santamaría* Guardia Zibilaren Zuzendari izendatzen dute.

-84ko otsailean, Carlos Sanjuan eta bere laguntzaileak Barne Ministerioa uzten dute. *Rafael Vera* da Sanjuanen ordezkari Barne Saileko idazkariordetzan.

Gainera, *Julián Sancristóbal* izendatzen dute Estatuko Segurtasunerako Zuzendari Orokorra.

-84ko martxoan, *Francisco Alvarez* izendatzen dute Barne Ministerioko Informazio eta Ekintza Berezien Taldeko Buru.

3.2. BIGARREN BELAUNALDIAREN EZAUGARRIAK

A. Helburua.

Garai guztietan oinarri bera dugun arren, orainoan **zehaztasun handiagoak** ikusten dira alde aurreko garaietan baino, landutako teoria lanari esker. GALen ekintzen helburua zehatza da: "santutegi frantziarra" deitutakoari amaiera eman eta frantziar agintarien laguntza lortu maila guztietan, ETaren kontra borrokatzeko.

B. Ekintza motak.

B.1 Iparraldean gertatzen dira ekintza guztiak, Xanti Brouarden hilketa izan ezik.

Bi ekintza mota ditugu:

-Pertsona hautatuen hilketak (ETAko ustezko kideak, errefuxiatuak, ezker abertzaleko kideak...)

-Leku publikoetako tiroketak edo erasoak, Iparraldeko jendea izutu eta larritzeko, eta baita ere errefuxiatuen kontrako jarrerak sorrarazteko.

Horietako zenbait erabat **edonoren kontrakoak** izan ziren, hala nola Baionako Cafe de Pyrenées-en gertatutakoa edo Ziburuko Trinquet Txikin.

Gainera **oker handiak** egin zituzten ekintzetan: Jean Pierre Leyba (84-3-1), Robert Caplanne (85-12-24), Cristophe Matxikote eta Catherine Brion (86-2-17)

Hegoaldean kontrolik-gabekoen terrorismoak aurrera egin zuen, guardia zibilen eta polizien parte hartzearekin, Lopez Carrillo poliziak garbi adierazi zuen bezala:

"Me encargaron de formar un grupo de policías para trabajar fuera de horas de servicio, de paisano, en la lucha antiterrorista. Así se hizo. Nos dedicamos a pegar carteles, lanzar octavillas, quitar pancartas de HB, tanto en Francia como en España. Eso, al principio. Luego se quemaron coches de dirigentes de HB, se tirotearon sedes de la misma coalición,..."

C. Ekintza armatuen gauzatze maila:

Ezaugarri nabarmena da garai horretakoa **ez dela soilik mertzenarioen terrorismoa**.

Egia da badela aurreko garaiko mertzenarioekin nolabaiteko **jarraipena**, batez ere, Cheriden taldeko jendea arituko da, hala nola Khiar, eta, Saenz de Santamaría esandakoari jaramonik eginez gero, Talbi bera, Argalaren kontrako atentatuan parte hartu zuela esaten baitigu.

Mertzenario portugaldarrak azaltzen dira Philippe Labade buru zutela eta beste zenbait Amedok berak lanerako hartuak, eta Portugalgo zerbitzu sekretuekin zerikusia zutenak. Baziren baita ere Pau eta Marsella inguruko frantziar mertzenarioak.

Baina ekintza hauen **ezaugarririk aipagarriena** polizia eta guardia zibilek ekintzetan izan zuten parte hartze zuzena da.

Adibidez, Larretxea eta Segundo Mareyren kasuan, poliziak, eta Lasa eta Zabalerenean eta beste batzuetan, guardia zibilak.

Hori CESIDek proposatu zuenaren kontra doa.

Parte hartzaileen ikuspegitik **bi garai bereiz daitezke**:

*Lehena, 83ko urriatik 84ko martxora dihoana, eta berezia da, hain zuzen ere, zenbait mertzenario tartean izan zirela ukatu gabe, polizia eta guardia zibilen partaidetza nagusitu zelako. Garai horretako ekintzak dira gaur egun ezkutatuena geratu direnak, Marey eta Larretxearen bahiketak izan ezik.

* Garai hau bi gertakizunen ondorioz eten zen: bata, Leybaren kontrako atentatuaren akatsa, mertzenario eta guardia zibilaren salatariek egin zutena, eta bestea, Cheriden heriotza, 84ko martxoaren 18an, prestatzen ari zen lehergailuak eztanda egin zionean.

Bi gertakizun horien ondorioz, GALeko zuzendaritzak mertzenarioak soilik erabiltzea erabakitzen du, eta jende hori kontratatzeko Amedo eta Dominguez aukeratzen dituzte, batez ere.

* 84ko martxoaz geroztik, frantziar eta portugaldar mertzenarioak izango dira ekintzen egile nagusiak, nahiz eta "El Mundo"ko azken berrien arabera, azken garaian GAL nafarraren parte hartzea ere nabarmena izan, Iruñeako Informazio Taldearen zenbait inspektorerekin, ekintzak aurrera eramateko espainiar mertzenarioen lanaz baliatuz (Miguel Brescia eta abar).

D.- Mertzenarioen hautaketa eta kontratazioa

Lan garrantzitsuena Amedo eta Dominguezek egin zuten, baina ez ziren bakarrak izan.

Bi eratara egin zen hautaketa:

a) Zuzenean, Figuerido Fontes eta Antonio Ferreira portugaldarren kasuan gertatu zen bezala (*Batxoki* taberna eta *Consolation* tabernaren kontrako atentatuan parte hartu zutenak, 86ko otsailean), edo Frugoli eta Mattei (Monbar tabernaren kontrako atentatuan parte hartu zutenak 85eko irailean). Lehenek, portugaldar zerbitzu sekretuekin zuten zerikusia eta bigarrenek Marsellako hamparekin.

b) Zeharka, beste pertsonen bidez, beste mertzenarioen bidez, horietako zenbait bi lanak batera egingo dituztelarik, jendea kontratatu eta ekintzetan parte hartu.

Horien artean ezagunenak dira: Cherid eta Labade (ekintza egileak ere izan zirenak); Hitier (OASeko kidea); Carlos Gastón (Javier Galdeanoren kontrako atentatua egiteko mertzenarioak kontratatu zituenak) eta George Mendaille.

E. Estrategiaren edo ekintzen egitasmo-erabakien maila

Mailarik garrantzitsuena da, bai GALen garaian eta baita lehenagoko belaunaldietan ere. Gainera hori da ezkutatuena egon den maila; zuzendaritza politikoa non zegoen eta noren esku zegoen ezagutzen baitugu (batzuk auziperatuak daude iadanik Auzitegi Gorenean), eta baita zenbait egile ere, baina, ez da, ordea, aurrera egitea lortu bigarren maila honen iharduteko modua ezagutzeko ikerketetan, ez epaitegietako lanetan, ez kazetarietan.

Datu bat edo beste besterik ez dago, hala nola Peroteren auziperatzea, Kattu eta Monbar kasuengatik, eta Alonso Manglanorena bigarren kasu horretan; hau da, CESID lehenengo aldiz azaltzen da estatu terrorismoari buruzko sumario batean, erakundeko zuzendariaren eta Talde Operatiboen buruaren izenekin.

Eta egia esan, **CESIDek erabateko garrantzia du** maila honetan:

1.-83. urtean zehar, lan teoriko orokorra egin du, lehen esan dugun bezala.

2.-Urte horietan CESID guardia zibilez dago osatua bereiziki, eta horregatik harreman estuak zituen CESIDek Guardia Zibilarekin, biak Defentsa Ministerioaren menpe egoteaz gainera.

3.- CESIDen lana urte horietan hau izan zen:

*Guardia zibilei eta mertzenarioei beren ekintzetarako azpiegitura eskaintzea (etxebizitzak, autoak, zuloak...)

*Egileei armak iritsiaraztea, zenbaitetan CESIDeko agenteek Iparraldean utzi eta gero. Perotek berak epailearen aurrean onartutakoa.

*Informazioa biltzea eta ematea (errefuxiatuen argazkiak, zuzenbideak...). CESIDek laguntzaile-sare handia du, agian operazio gunea Burdeoson duelarik.

*Frantziar polizia eta salatariei ordaintzeko dirua helaraztea.

*GALen zigilua egitea.

4.-Horregatik, CESIDek ezagutzen zituen aldez aurretik egingo ziren atentatuak, horren lekuko, 93ko, irailaren 28ko, barne oharrak zioena; Perotek Manglanori esandakoa Katturen kontra atentatua egingo zela oharraraziz; eta gauza bera Txato Otegiren kasuan.

Beraz, CESIDen agiriekin erabateko garrantzia dute estatu terrorismoaren bigarren belaunaldia ezagutzeko.

Edozein modutara ere, maila horren eraketa eta iharduteko era neurri batean Martinez Torres eta Perotek Epaitegi Gorenaren aurrean egindako adierazpenei esker argitu da. Lehenak esan zuen informazio mahai bat edo koordinazio mahai bat bazela, MULC (Mando Unificado de la Lucha Contraterrorista) mahaiaren ordezkari izateko sortu zena, eta han biltzen zirela:

*CESIDeko ordezkari bat (Terrorismo saileko burua)

* Guardia Zibilaren ordezkari bat (agian Casinello).

* Poliziaren ordezkari bat (agian Martinez Torres, Ballesteros eta Francisco Alvarez).

* Barne Ministerioaren ordezkari bat (agian Sancristóbal).

Datu guztien arabera pentsa daiteke mahai horretan kokatzen zela GALEko operazioen edo ekintzen egitasmo-erabakien buruzagitza, beste zenbait arrazoiren artean mahaia horretara iristen zelako beheko mailek bidaltzen zuten informazioa.

Hori da operazioen koordinaziorako erakundea, ZEN egitasmoan azaltzen zena, eta koordinazio mahai hori bera antolatzen da **beheragoko mailetan**, hau da, Komunitate Autonomoetan (hemen burua espainiar gobernuaren ordezkaria da) eta Herrialdeetan (hauetan gobernari zibilak dira buru).

Beheko maila horietan aipatzekoa da gobernari zibilen garrantzia (Elgorriaga, Sancristóbal eta L.Roldán) eta horri buruz Damboreneak esaten du: *"Eran los jefes naturales de los Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado para todo tipo de acción antiterrorista: legal o ilegal. Estabamos en la misma trinchera"*.

Herrialdeko mahaiako bilerak Gipuzkoako gobernu zibilean egiten ziren, eta gobernari zibilaren inguruan, guardia zibilaren ordezkari bat, poliziaren beste bat eta CESIDeko beste bat biltzen ziren, eta han elkar trukatzen zuten errefuxiatuen bizimoduari buruzko informazioa eta dokumentazioa; bildutako guztia Madrilgo CESIDeko egoitzara bidaltzen zen.

F) Frantziar polizia.

Beheko maila horretan, herrialdeetan alegia, nabarmena izan zen frantziar poliziaren partaidetza.

Lehenengo belaunaldiko terrorismoan gertatu zenarekin alderatuz gero, oraingoan, parte hartze **zuzena eta eragilea** izan zuen frantziar poliziak delituak egin aurretik. Zenbait eginkizun izan zituen, hala nola, ekintzen helburu izango zirenei buruzko datuak bildu eta zehaztea.

Errefuxiatuei buruzko datuak ematen zizkion polizia espainiarrari, iparraldean bizitzeko baimena eskatzen zuten errefuxiatuen argazkiak, edo poliziaren artxiboetako argazkiak haien eskutara helaraziz.

Barne Ministerioaren ezkutuko diruarekin ordaintzen zitzairen. Lasa eta Zabalearen sumarioan elkar lan horri buruzko datu oso adierazgarriak azaltzen dira. Eta horien ondorioz esan daiteke, **bi polizien arteko elkarlanari** esker lortutako agiriak eta informazioa, gobernari zibilari ematen zitzaiola, eta honek herrialdeko koordinazio mahaiaren bidez CESIDera bidaltzen zuela, eta Gipuzkoan gainera, beste kopia bat Intxaurrendoko Koartelera bidaltzen zela.

Informazioa Madrilera iristean, datuak aztertu eta han ekintzak egitea egokia zen ala ez erabakitzen zen.

Era berean, aurreko belaunaldian ikusi genuen jarrera bera azaltzen da hemen, hau da, ekintzak egin ondorengo pasibotasuna, mertzenarioen ihesari laguntza emateko, bai polizia kontrolak berandu jarriz edo beste zenbait neurri hartuz.

G. Erabaki politikoaren maila

Esan dugun bezala, Epaitegi Gorenak Barrionuevoren kontrako auziperatzean argitaratu berri duen Autoan esaten da, Barrionuevo eta Vera direla, GALen antolamenduan zuzendaritza lanak bere gain hartu zituztenak.

Eta Damboreneak, Barrionuevorekin epailearen aurrean egin zituen aurrez aurrekoetan dioena kontutan hartzen badugu, bi horiez gainera, Sancristóbal, Benegas, Jauregi eta Casas izan ziren Guadarramako mendian Iconak duen txaletean egindako bileran, gerra zikina abiaraztea erabaki zutenak.

Ez dago zalantzarik GALen "X" delakoa Felipe Gonzalez dela, eta horregatik ez dut horretan denborarik alferrik galduko, ez baita hori garrantzitsuena guretzat une honetan, gero azalduko dudana bezala.

Gainera ezin zuen beste era batera izan, GAL taldearen ekintzek, goi mailako interes politikoekin lotura estua baitzuten. 1984an atentatuak eten egin ziren extradizio garaian, eta 1986an errefuxiatuak kanporatzen hasi zirenean, erabat desagertu ziren. Garbi geratu zen ekintzak egiten zituen GAL baten ondoan, beste GAL politikoa ere bazela, nahitaez gobernu sozialistaren egituran kokatua egon behar zuena.

4. GAL DESAGERTU ONDORENGO GARAIA

Hemen bi gai aipatu besterik ez ditut egingo. Alde batetik, noizean behin eta noiznahi azaltzen den "inkontrolatuen" terrorismoa (taberna bat erretzen dutela,

mehatxuak egiten dizkiotela norbaiti...), eta bestetik, Alcalá hoteleko atentatua, hor isolatua geratzen zaiguna. Atentatu honen azalpenak ez dira aurkituko lehen esan dugun estatu-aparatuen "gune" horretara jo gabe, eta garbi dago ezin dela ikerketa amaitutzat eman Duce izeneko polizia bati jarritako zigor soilarekin.

5. ETORKIZUNARI BURUZKO GOGOETAK

A. Daturik kezagarriena da bigarren maila deitu dugun hori ukitu gabe geratu dela, hau da, estrategia edo ekintza egitasmoak prestatzen zituztenen maila. Ez da desegin, ez da garbiketarik izan, are gehiago mailaz igo dituzte eta kargu garrantzitsuetan jarri dituzte maila horretan ardura izan duten pertsonak. Hori da etorkizunerako arazo larrienetakoa.

Zehatzagoak izateko esan behar dugu neurri batean bakarrik ikertu dela maila hori, eta hori Barne Ministerioaren eremuan, eta ez ordea Guardia Zibilaren edo CESIDenean.

Gainera, informazio eta zerbitzu sekretuetako arduradunetz osatutako estatu aparatua ari gara, eta horrenbestez, gobernu aldaketen gainera dagoen zerbaitez. Beraz, UCDren garaian kargu horiek berak zituzten pertsonak dira, PSOEn garaian iraun zutenak eta PPK informazio zerbitzuetarako egingo duen organigraman ere egongo direnak.

Hor daude, Ballesteros, Martinez Torres, Galindo, Saenz de Santamaría, Guillermo Ostos, Cándido Acedo, Casinello eta horiekin ikasi duten beste zenbait, horren ezagunak ez direnak. Benetako botere faktikoa eratzen dute, poliziaren maila gorenetan irauten dute, Estatuaren gune txiki horretan beren lan egiteko era edo praktika, behin betiko finkatua utzi dute, eta jarraipena ziurtatua dute, nahiz eta batzuk alde egin; eta hori, beste zenbait arrazoiren artean, **zigorgabezia mugitu izan direlako beti.**

Gune edo talde horrek bere egingo lituzke Saenz de Santamaríak esandakoa: *"Contra este cáncer que existía con UCD, existe con el PSOE, y mientras exista, con quien venga, los métodos para luchar contra él tienen que ser iguales"*.

Talde hori estatu terrorismoaren jarraipenaren aldekoa da, eta horrela, Felipe Gonzalezek aste bukaeran esan duen bezala, gerra zikina berpiztuko balitz, ez litzateke izango berak dioen bezala "kontrolik gabeko erantzun bat", estatuaren

egiturek prestatu eta erabakitakoa baizik, alegia, ezkutuan bizirik dagoen zerbait martxan jartzea.

B. Gainera, izatez eta egitez, PSOEek PPrekin **hitzarmen politikoa** egin du, Estatu terrorismoaren estrategia prestatzen zerikusia izan dezaketen poliziaren eta estatuko zerbitzu sekretuen goi mailak babesteko eta zigorrik gabe uzteko.

Gaur egun, GAL-en arazoa PPk eta beste zenbaitek gobernu arazoa balitz bezala plazaratzen dute eta hauteskunde garaiko tresna gisa, baina ikusi dugun bezala estatu arazoa da benetan.

C. Bestalde, kontutan hartzen badugu GAL estatu espainolaren garaipen politiko-militarraren eredia dela, ETAren eta bere egitasmo politikoaren kontrako borrokan, Euskal Herriko subiranotasunaren arazoa konpondu gabe dagoen neurrian, gune sendo horrek estatuaren egituren barruan irauteak, **Estatu terrorismoaren 3. belaundaldia sortzeko behar diren baldintzak ziurtatzen ditu.** Beraz, badago "GAL-ondorengo" bat sortzeko ahalmena, estatu arrazoiek eskatuko balute.

Horregatik garrantzitsuena ez da GALen "X" hori nor den jakitea, aldaketa politiko soilak eta hauteskondeek aldaraziko luketelako, lehenengo mailan GAL eratzeko erabaki politikoa hartu zutenak desagertuko diren bezala.

Hori dela eta, **GALen ikerketan euskal herritarroi axola zaiguna ez da erantzunkizunak goruntz bilatzea** eta Barrionuevoren zigorra lortzea, hori gutxiestekoa ez den arren, hori baino gehiago da **beheruntz ikertzea eta batez ere bigarren mailan**, maila hori garbitu eta era horretan oztopoak jartzeko Euskal Herrian terrorismo beltzarik berriz sor ez dadin.

D. Zalantzarik ez dago estatu terrorismoan **Guardia Zibilak** parte hartu zuela, hala iragarri zuen CESIDeko agiriak 83ko irailaren 28an.

Gaur egun Estatuaren lanik handiena da 2. mailan egiten diren ikerketak, Defena Ministerioarekin lotura duten eremuetara, hau da, CESIDera eta Guardia Zibilera **iristen ez uztea**, eta hori garbi ikusi da Galindo mailaz igo, babestu, eta gorai patu dutenean; Intxarrundo ikertzeko ahaleginei ezetza eman zaienean edo oztopoak jarri direnean; delituak ikusi edo horien berri izan duten guardia zibilei

isiltasun legea ezarri zaienean; lekuko izan zitezkeenei egindako mehatxuetan (Brescia mertzenarioari, edo Lasa eta Zabala kasuko zenbaiti); GAL berdea ikertzen ari direnei egindako mehatxuetan (De Federico komisarioa); eta Guardia Zibilaren Komandantziak datuak eta agiriak ez emateko erabakia hartu duenean. Are gehiago, esango nuke, hori guztia Entzutegi Nazionaleraino iritsi dela, eta Bueren epaileak adibidez, ezin izan diola presio eta indarkeria horri aurre egin, eta nahiago izan duela lana bertan behera utzi, zuzenean Guardia Zibilari aurka egin baino.

Arlo horretan ikerketak sakontzeko oso kontutan hartzekoa da **Perote dela kate-maila ahula**, eta hala ulertu du Garzón epaileak. Ziur asko bide horretatik aurrera pausuak eman ahal izango dira.

E.- Bestalde, **Belloch ministroaren jarrera** salatu behar da, ezkutuan mantentzen den organigramaren zati hori argitzen ez uzteko ahaleginak egiten ari delako, bera izan baita CESIDeko agiriak *Istilu* edo *Eztabaiden Epaitegira* eramateko trikimailua asmatu zuenetako bat. Berak galerazi nahi dio Garzón epaileari Lasa eta Zabala kasua hartzea; eta gainera, ez diogu hitz bakar bat entzun, ezer esateko asmoa izan lezaketen polizia eta guardia zibilei bere laguntza eskainiz, edo ezagutzen duten guztia epailearen esku jar dezaten eskatuz, beldur baitira bestela beraiei eta beren familiei gerta lekiekeenaz.

F.- Bada beste datu bat Guardia Zibilak estatu terrorismoan izandako parte hartzea argitzen lagundu dezakeena, neurri batean besterik ez bada ere, eta da, **pertsona talde bera** izan zela Zabalza torturatu eta haren bortxazko heriotza ezkutatu zuena, Joxi eta Josean bahitu, torturatu eta hil zuena, Kattu, Peru eta Stein ... hil zituena, eta horregatik edozein sumariotan ematen den urratsa aurrerabidea izango litzateke kasu guztietarako, eta estatuak beldur handia dion "domino efektua" gertatuko litzateke orduan.

G.- PSOEek Amedo eta Dominguez, GALEko Iturbide eta Zabala bilakatzeko zuen asmoak porrot egin baldin badu, garai batean Entzutegi Nazionalaren 91-9-20ko epaiak lortu zuen bezala, ez da Estatuak eta estatuko botereek gaia

aztertzeke izan duten borondateari esker gertatu, beste zenbait arrazoiri esker baizik. Horien artean:

1. Zenbait kazetarien lana.

2. Poliziaren eta zerbitzu sekretuen tira bira eta ezineramanak, estatu espainolean aspaldikoak.

3. Garzón epailearen borondatea eta ausardia.

4. Estatu terrorismoak egile edo partaide nagusiak diru publikoarekin aberastu zituela jakin ahal izatea eta horrek horrenbeste diru jaso ez dutenen artean eragin dituen haserreak.

H. GAL kasua agerian uzten ari da:

1) Leonardo Sciasciak zioena, alegia, inoiz ez dugula ezagutuko boterak eta bere egiturek egindako hilketei buruzko egia. "Zigorrik gabeko gaizkile handia" da boterea.

2) Estaduak **legeak** eginak dituela eta ikerketei ateak ixteko erabiltzen dituela lege horiek:

-Ezkutuko diruari buruzko legeak

-Gai sekretuei buruzko legeak

eta horrek estatu egituren ekintzen kontrol demokratikoa galerazten du.

3) "Sekretua", "ezkutua", "iluntasuna"... gobernuaren ekintzen eremu dira, boterea indartzen dioten eremuak dira, bereak bakarrik baitira eta berak baitu ahalmen osoa. Gonzalezek esaten duen "estatuaren zikin zuloak edo estoldak" dira.

4) "**Sekretu ofiziala**" egiten da jaun eta jabe, eta horretarako Aginpide Judizialaren laguntza ere lortzen da, 95-12-14ko Jurisdikzio *Istilu* edo *Eztabaiden Epaitegiaren* epaian ikusi ahal izan den bezala. Epaiak Gobernuaren esku utzi du Estatu terrorismoari buruzko CESIDeko agiriak Garzón epaileari ematea ala ez ematea.

Erabateko garrantzia duen erabakia da hori, benetako oztopoa ikerketarentzat, eta **horrek erakusten du:**

-GAL gaiari "de facto" behin betiko amaiera emateko borondatea, eta zehazki CESID erakundea eta Guardia Zibilaren parte hartzeari dagokionean.

-Zigorrik gabe geratzeko eskubidea, ez bakarrik zerbitzu sekretuentzat, baita gobernuarentzat ere, edo gauza bera dena, delituak egiteko ahalmena.

-Botere-banaketa ohikoaren kontrako erabakia hartu dela, gobenuari lehentasuna ematen baitzaio botere judizialaren kalterako.

5) Estatu arrazoien aurrean Zuzenbide Estatuaren **ezintasuna** jartzen du agerian. Polizia Zerbitzuek lana egiteko erabiltzen dute salbuespen logika eta eremua da garaile.

Horrek guztiak osatzen du Estatuaren benetako izaera , eta azken finean, Estatuaren ispilu bihurtze da.